



BIZITZA ERDIGUNEAN JARTZEKO

urratsak

6. URRATSA
2018ko urria

Euskal Herria Harrera Herria: aldarrikapenetik errealitatera bidea egiten



iparhegoa

IKASKETA
SINDIKALETARAKO
FUNDAZIOA

LAB
>ekintza soziala



Mikel Alvarez Olaechea (Betelu, 1993) Bilboko LABeko Ekintza Sozialeko arduraduna da. Beste hainbat LABkiderekin batera, Ongi Etorri Errefuxiatuak plataforman sindikatua ordezkatzeko hasi zen migranteen inguruko aferan antolatzen. Ordutik hona, hainbat izan dira mugimenduak zein guk geuk emandako urratsak eta irekitako fronteak. Urrats honetan, atzera begiratu eta egindako bideari erreparatzeaz gain, hurrengo urratsen norabidea zein izan daitekeen irudikatzen lagunduko digu.

Don inorrez ez lekuan

Don Inorrez. Horrela izena du Imanol Ubedak, orain arte Bide Ertzeaneko kide izandakoak, sortu berri duen musika proiektuak. Kontzeptu horrekin izena eman diezaiokegu urte honetako udan bizi izan dugun errefuxiatu eta migranteen afera. Izena izatea, hain zuzen ere, izana eskuratzeko lehen pausua izan ohi delako, Don Inorrez horiei izena esleitzea beharrezkoa da. Bizitzaz hitz egiten badugu, izenez eta izanaz hitz egin behar dugu.

Ez lekuan. Ez lekuak, soziologian, arimarik gabeko lekuak dira, aseptikoak. Leku baten antitesia da, espazio fisiko hutsetik harago dauden elementu guztiak anulatuak ikusten dituenak. Ez leku bat bi prismetatik ikusi daiteke: lekua bera hutsa delako edo pertsona batentzako leku horrek ez duelako ezer esan nahi, nolabait trantsiziozko elementu bat litzatekeelako. Azkeneko hau bizi izan dute migrante eta errefuxiatuek, ezlekuaren sententzio hutsala. Ezleku horri izena kapital humanoa jartzea da, halaber, komunitate (eta nazio) bilakatzeko lehen pausua. Bizitza kolektiboaz hitz egiten badugu, izen eta izan amankomun eta konpartituez hitz egitera kondenatuak gaude.

Europaren maskara erauzi duen uholdea

Fenomeno meteorologiko bezala izendatu dute errefuxiatu eta migranteen afera, zerutik erortzen den eurien edo elurraren antzera. Gatazka hau "fenomeno" bezala izendatzea politika alde batera uztea da, postpolitikaren alderdirik okerreza azaleratuz. Gestioa eta teknifikazioa; bi hitz horiek bolo-bolo dabilta, aferaren erroa eta soluzioak politikoak ez direla aldarrikatzen dutenen aldetik. Kapitalaren eta bizitzaren arteko kontraesanaren adierazpenik gordinena dugu begien aurrean.

Baina goazen marko orokor bat jartzea egoera konkretu honi. Kapitalismo transnazionalaren eta inperialismoaren garapenak eraman gaitu ataka honetara, krisi sistemiko eta zibilizatzailea errealtate bihurtuz. Kapital metaketak bizitzen jasangarritasuna erasotu behar du bere prozesua jarraitzeko. Herriak eta pertsonak azken mugaraino ustiatzea du helburua, izan ere, erauzketa kapitalismoaren fasean bizi gara, non merkatu berriak bilatzea ezinbesteko baldintza den etekin berriak profitatzeko.

Heriotza eguneroko ogia da. Bizitzaren kontrako pedagogia konstantea da politikan eta komunikabideetan. Dimentsio kulturala ematea lortu dute (bere sakontasun guztian) eta guztiz hutsaldu dugu heriotzaren zentzu dramatiko. Autore ezberdinek dioten moduan, nekropolitikaren garaian gaude; termino kapitalistetan, kontsumitzen eta produzitzen ez duten pertsonak daudenez, sistemari ez zaizkio interesatzen eta beraz, hiltzen uzten ditu. Ez dira beharrezkoak, ikusezinak bihurtzen dira. Mediterraneo zulo beltz bilakatu da, bizitzaren kontrako alegoria bat. Milaka eta milaka pertsonak galdu duten euren bizia bertan. Heriotza banalizatu eta normalizatu dugu; hori da lortu duten garaipen kulturalik handiena. Bizitzaren kontrako erasoak normalizat hartu ditugu.

Azken urte hauetan, Afrikatik eta Ekialde Hurbiletik etorri dira gure artean dauden pertsona migrante eta errefuxiatu asko. Gerra faktore indartsu bat izan da, baina ez bakarra. Faktore poliedrikoak dira pertsonen mugimendu hau bultzatu dutenak: desjabetze ekonomikoa, klima aldaketak eragindako egoera ezberdinak, indarkeria matxista, jazarpen erlijiosoa... Askok dira eta anitzak, hain zuzen ere, arrazoi horiek. Hala ere,

kontuan izan behar dugu ez dela aldaketa kuantitatibo handirik eman kopuruei dagokienez; gertatu dena, preseski, migrazio bideen aldaketa izan da eta pertsonen kontzentrazioa urteko epe jakin batean. Europako bide ezberdinak itxi edo zaildu dira, hala nola, Grezia, Balkanak edo Italia.

Beraz, bizitzaren kontrako eraso bikoitz baten aurrean aurkitzen gara. Alde batetik, inperialismoak eragindako desjabetzea eta bestalde, pertsonen zirkulazio librearen kontrako erasoak. Kapitalari eta merkantziei atea libre uzten zaien bitartean, pertsonen joan etorriak galarazten dira, betiere kontuan hartuta joan etorri horiek opresio estruktural batek sortzen dituela. Hori gutxi balitz, muga hauen itxiera ez da soilik Europaren kanpoaldean ematen. Europaren mugetan harresi handi bat eraiki duten arren (Turkiaren eta Europar Batasunaren arteko akordioa izanik adibiderik gordinena), harresia txikiagoak eraiki dituzte Europaren barruan. Bi adibide garbi ditugu:

- Kuota sistemen ezarpena. Logika horri jarraiki, bi abiaduretako Europaren ideian sakontzen da. Hegoaldeko herrialdeak koltxoi moduko bat dira iparraldeko herrialdeek errefuxiatu kopuru handirik jaso ez dezaten. Kuotak ezartzeko parametroak guztiz bidegabeak dira. Gainera, hartutako konpromiso horiek ere Europar Batasunak ez ditu bete.
- Dublineko erregelamendua. Honen arabera, Europar Batasuneko herrialde batek soilik kontsideratu dezake asilo eskaera. Honek zer dakar praktikan? Irun eta Hendaiaren arteko mugan gertatu dena; hau da, poliziak herrialde batetik bestera bueltatzea pertsona horiek, inolako babes edo balibiderik gabe. Dublinizatutako pertsona migranteak bezala ezagutzen dira protokolo hau jasaten dutenak.

Migrazio derrigortua klase borrokaren beste espresio bat da. Lana eta kapitalaren arteko kontraesanetik, bizitza eta kapitalaren arteko kontraesanera pasatu gara diogunean, baieztapen hori modu argian ikusten da pertsona migrante eta errefuxiatuen kasuan. Lan indarraren esplotaziotik euren esplotazio integral basatira igaro gara; bizitza da jokoan da-goena.



Herri-erantzuna artikulatzen: Euskal Herrian zer?

A gertoki honen aurrean, Euskal Herrian dinamika ezberdinak abiatu dira. Hala eta guztiz ere, azpimarratu beharra daukagu mugimendu hau ez dela hutsetik abiatu, izan ere, Euskal Herriak beste herriekiko elkartasunean ibilbide luzea du. Herri esperientzia horretan barnebilduko genituzke, besteak beste, internazionalismo brigadista, auzo langileetan aurrera eramandako esperientzia komunitario ezberdinak, ONG ezberdinen bitartez gauzaturiko nazioarteko lankidetzak... Praktika horiek askotan elkarren osagarriak izan dira, askotan paraleloak eta zenbaitetan baita kontrajarriak ere. Dena den, gauza bat argi dago: metatutako esperientzia kolektibo handia du gure herriak.

Gaur egungo mugimendurik esanguratsuena, jakina den bezala, Ongi Etorri Errefuxiatuena izango litzateke. Plataforma bat baino, orain arteko antolaketa ereduak gaitzen duen filosofia bat litzateke OEE. Borroka sozial berrien ereduari jarraiki (hala nola, pentsionisten mugimendua eta martxoaren 8a), eta batez ere, feminismoak erakutsi duen bideari segida

emanez, elementu berritzaile garrantzitsuak ditu. Momentu historiko honetan dugun erronka migratzaileen aurrean, subjektu zabal eta anitza artikulatzea behar beharrezkoa zen. Hori horrela izanik, eremu honetan lanean dagoen eragile bakoitzaren autonomia errespetatuta, sare zabal eta potente bat sortzea lortu du, agentzia eta input indar garrantzitsua gartzten duena, baita lan praktikoa ere.

Lehenengo etapa batean, interpelazio eta salaketan gartzten zen mugimendu hauen ekintza politiko eta soziala. Hor kokatzen ditugu Europako mugetara egindako karabana eta martxa ezberdinak. Gernikara egindako martxa da adibiderik agerikoena. Errefuxiatu eta migranteen afera distantzia geografiko batetik ikusten zen, Euskal Herriak inpaktu zuzenik izango ez balu bezala (nahiz eta gure herrian migranteak betidanik egon diren). Krisi hori mediterraneoan itsasoan kontzentratzen ari zen, hasiera batean Ekialde Hurbilaren inguruan. Herri mobilizazioaren faktorea ere aipatzekoa da lehenengo etapa honetan, izan ere OEE gai izan zen errefuxiatu eta mi-

granteen gaian zeuden sentsibilitate anitz horiek biltzeko eta mobilizazio bilakatzeko. Nolabaiteko kontsentsu sozial bat eragin zuen gai honen inguruan lanean ari ziren agente eta pertsona ezberdinen inguruan.

Merkantilizazioaren gupil zoro honetan, bizitzaren erreskatteak ere merkantilizatu dira. Lehen aipaturiko nekropolitikari jarraiki, estatuak euren funtzioei muzin egin eta pertsonak Mediterraneoan hiltzen utzi dituzte. Horren aurrean, hainbat ONGk funtzio hori bere gain hartu, eta ardua publiko bat izan beharko litzatekeena, *de facto* pribatu bihurtu dute. Beraz, paradoxa badirudi ere bizitzak salbatzea ere negozio eta diru iturri bilakatzeko bidean da. Hainbat ONGk lan hori konbentzimenduz eta arriskuak hartuz egiten dutela egia den arren, beste batzuek funtzio horiek soilik diru-iturri gehiago lortzeko egiten dute. Externalizazio horren bidez, beste hainbat zerbitzu publikoetan gertatzen den bezala, estatuak euren burua zuritu eta inizatiba pribatuen esku uzten dute guztia.

Euskal Herrira, eta zehazki, errefuxiatu eta migranteen aldeko mugimendura itzulita, bigarren etapa batean gaudela esan daiteke. Salaketatik, inplikazio zuzenera igaro da mugimendua. Errefuxiatuen eta migranteen afera agerikoagoa bilakatu da (are gehiago) gurean eta horrek inpaktu jakin batzuk izan ditu. Bizitza sostengatzeko ariketa primarioa, hau da, zaintzaren eguneroko praktika, eta sakoneko arrazoiak salatzearen praktikak uztartzeko ariketa dago orain mahai gainean. Dena den, lehenengo praktika horretan, hau da, zaintzan urgentean, hainbat argipen egitea beharrezkoa da. Alde batetik, ekintza humanitario soila daukagu, zeina desagertzeko sortzen den eta oso puntuala den; beste alde batetik, elkartasuna daukagu, zeina jarrera eta posizio bat den munduaren aurrean, momentu jakin batzuetan urgentziazko laguntza horiek ematera eramaten zaituena, baina instituzioen erantzukizuna begibis-tatik galdu gabe.

Beraz, mugimenduan bi erronka egongo lirateke, besteak beste, momentu honetan mahai gainean:

- Alde batetik, premiazko arretaren eta interpelazio politiko sakonagoaren arteko oreka bilatzea. Biak ezinbestekoak dira migranteen eskubideak errespetatzeko eta bizitzaren sostengarritasuna bermatzeko. Oreka horrek hainbat klabe izan ditzake.
 - Egoera ez kronifikatzea. Hau da, zerumugan beti administrazio publikoaren inplikazioa izatea eta bere betebeharrak bete ditzan derrigortzea. Horretarako zaintzari balio politiko bat eta irismen publiko bat emateaz

gain, interpelazio zuzenarekin uztartu behar da. Laguntza, ekintza politiko eta salaketa hiruki berdinen aldeak besterik ez dira.

- Laguntza jasotzen duten pertsonak subjektu pasibo kontsideratzen aktibo politiko izatera pasa behar dute. Eskubide guztien jabe direla aldarrikatzen badugu, hori praktikan jarri eta ekintza politikora pasatzea ezinbesteko baldintza da. Beraz, migrante eta errefuxiatuekin eraikitzen ditugun harremanak botere asimetriko batez zeharkatuta badaude ere, hori modu politikoan kanalizatzen jakin behar dugu, kolektiboan erdigunean jarrit.
- Bestalde, bizitzaren sostengarritasuna eta defentsa modu kolektiboan egin daiteke. Hori horrela izanik, migrante eta errefuxiatuak gure herri eta auzoetako komunitateen eraikuntzan integratu behar ditugu. Elementu hau oso konplikatu da, izan ere, pertsona bakoitzaren beharrak oso ezberdinak dira; batzuk Europara begira daude, beste batzuk noraezean eta beste hainbat, hemen geratzeko asmoarekin. Dena den, saiakera honetan sakontzea ezinbestekoa da:
 - Ezlekuaren kontzeptua iraultzeko ezinbestekoa da. Soilik komunitatean integratuz eta zapaltzen duten lekuari balio politiko eta soziala emanez emango diote pertsona horiek adierazgarritasun eta esanahi politiko gure herriari. Komunitatearen ideia sortu.
 - Xenofobiaren eta arrazismoaren kontrako errezetarik hoberena, migranteak eta errefuxiatuak auzo langileetako logika komunitarioan integratzea da. Ghettoak sortzea eta masa sozialetik aldendutako lanketak abiatzea, "ezberdinaren" eta "beldurraren" ideiei hauspoa ematea da. Beraz, ezinbesteko baldintza da komunitatea erreproduzitzeko modu berriak asmatzea eta mar-txan jartzea.

Bigarren fase eta etapa honen praktikak izan dira "Nik erroldatzen dut" kanpaina abiatzearen saiakera (nahiz eta azkenean maila publikoan ez aurkeztu eta ezerezean geratu) eta Harrera auzo eta herrien abiatzea, batez ere uda aldean. Bi praktika hauek, urgentziazko laguntza eta salaketa uztartzeaz gain, komunitatea beste klabe batzuetan erreproduzitzea zuen helburu. Beraz, ezin ditugu, nolabait esatearren, borroka material eta kulturala banandu. Biak ala biak ezinbestekoak dira bizitza erdigunean jartzeko eta gaur egungo erronkei aurre eginez, gure praktika politiko eta sozialak berrasmatzeko.



LAB ere mugimenduan burubelarri

LABen parte hartzea jarraitua izan da hasieratik mugimendu honetan. Hala ere, gure parte hartzea eta interbentzio lerroa aldatzen joan da momentu ezberdinetan, betiere migrante eta errefuxiatuekiko konpromisoan sakonduz. Lehenengo momentu batean, mobilizazio masiboetan parte hartu, dinamikak bultzatu eta gure kapital humano horren zerbitzura jartzea izan ziren aurrera eramandako ekintzak. Ekarpenean kualitatiboagoak ere tartekatu ziren, besteak beste, sindikatuaren IX. kongresuan ateratako adierazpena. Gainera, errefuxiatuen aldeko dinamika eta Euskal Herriko aldekata sozialaren aldeko dinamika orokorra batzeko saiakerak eta praktikak etengabekoak izan dira; hor kokatzen da Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak eta OEEk karabanetara deitzen egindako prentsaurrekoak edota ekimen ezberdinetan uztartu diren aldarrikapen konpartituak. Karta Sozialak aurkeztutako azkenen HEL-eko edukiak adibidez, OEEko kide batzuekin kontrastatu eta aldarrikapenak uztartu ziren, konfluentzia horiei bide emanez.

LABek ere ekimen propio andana garatu ditu, aipatzekoak direlarik kale saltzaileekin egindako lana, Sindicato Popular de Vendedores Ambulantes eragilearen sorrera ekarri duena,

edota FSMko ekimenen bitartez abiarazitako salaketa kanpainak. Horrez gain, nazioarte mailan ere ekimenak aurrera eramanez, Tribunal Permanente de los Pueblos bezalako ekimenetan parte hartzen edo Europa Fortalezaren kontrako foro ezberdinetako kide izaten. Nazioartean parte hartzearen logika horren berebiziko garrantzia hartzen du, izan ere, migranteen eta errefuxiatuen inguruko partida hor jokatzeko da. Aliantza berrietan sakontzea klabea izango da hurrengo urteetan.

Sindikatuaren azkeneko kongresuan erabaki bezala, klase subjektuaren berrosaketan, migrante eta errefuxiatuen gaia ezinbestekotzat jotzen da. Beraz, lan lerro hau logika integral baten baitan kokatzen da, bitzita defendatzeko praktika sozial eta sindikal integral batean, hain zuzen ere. Lana eta kapitalaren arteko kontraesan historikotik bitzita eta kapitalaren arteko gatazkara pasatzean, maila teoriko eta praktikoan lan eremu klasikotik kanpo kokatzen diren gai guztietara zabaltzen da sindikatua. Horrek esan nahi du orain arte lan hori ez dela egin? Ez, horrek esan nahi duena zera da: orain praktika horietan sakontzen dela eta batez ere, *corpus* ideologiko koherente bat ematen zaiela interbentzio lerro horiei.



Harrera herri eta auzoak, esperientzia praktiko bat

Pasa den ekainaren hasieran, azkeneko hilabete hauetan errefuxiatu eta migranteekiko elkertasuna bideratu duen ekimenaren hastapenak aurkitu ditzakegu. Egun horietan errefuxiatu andana iritsi ziren gure hiri eta herrietako autobus geltokietara. Ez ziren egoera horretan zeuden lehenengo edo azkeneko migranteak; egoera hori sistematikoa izan da orain arte, baina azpiratua egon da, isildua gehiengo sozial batentzat. Orain honetan hainbat faktorek topo egin zuten:

- Mugimendu sozial artikulatu bat, saretze lan handiak egin da zituenak.
- Migrante horien ikusgarritasuna, izan ere, multzo handietan iristen ziren.
- Errefuxiatu eta migranteen gaia agenda politikoaren lehenengo lerroetan egotea. Mediterraneoan ematen diren eskubideen urraketak eguneroko ogia dira eta azkeneko hilabeteetan, errealitate hori denon ahotan egon da.

Egoera honen aurrean, Harrera lanetan eta oro har, OEE inguruan zeuden agente, kolektibo eta norbanako ezberdinak aktibatzen joan ziren erantzun bateratu bat emateko. Lehenik eta behin, eta aurretik esan bezala, urgentziatzko lanak aurrera eramatea ezinbestekoa izan zen, igarotze bidean zeuden pertsona askoren egoera ez zelako egokia. Janaria, edaria, lo egiteko lekua, osasun arreta... elementu guzti horiek barnebiltzen ditu egindako harrera lanek. Administrazioaren sentsibiltate, koordinazio eta errekurso faltaren aurrean, herri boterea artikulatu, harrera lanak praktika komunitarioen baitan integratu eta egoera horri aurre egin zitzaion.

Lehenengo lan horiek guztiz erreproduktiboak izan dira eta adierazgarria da aipatzea nola, mugimendu sozial alternatiboetan ere, lan horietan aritu zirenen gehiengo emakumeak izan ziren. Lanaren banaketa horretan, bizitzaren sostengu primarioaren funtzioak aldatu gabe jarraitzen du.

Jakina zen premiazko operatibo hori ezin zela epe luze mantendu, eta beraz, aterabide bat behar zuela. Horri aurre



egiteko, estrategia konketu bat artikulatu zen Bilbon: harrera lanak egiteko espazioak auzoz auzo mugitzen joatea. Modu horretan, "arazoa" kronifikatzea ekidin eta gainera, komunitate ezberdinen inplikazioa bilatzen da, harrera lanak politizatuz eta indar metaketa eginez. Horrela kontzientziatzea saretzeaz eta hedatzeaz gain, etorkizun batean interpelazio politikoa egikaritzeko baldintzak sortuko ditu. Interpelazio politikoa hori uneoro egin zela esan daiteke, izan ere, kontzentrazioen, adierazpenen eta salaketen zirimiria ez zen une batean ere gelditu. Inprobisazio puntua ere garrantzitsua izan zen, izan ere, praktika politikoa hau nahiko berria izanik eta egoeraren dimentsioak ikusirik, formula magikorik ez zegoela konstatatu zen. Beraz, bidetik azaltzen ziren galderari erantzun propioak bilatzeari ekin zitzaion.

Hala ere, azkar hasi ziren harrera lanen eta interpelazio politikoen arteko tentsioak. Premiazkoa eta garrantzitsua, norbanakoen borondatea eta instituzio publikoen inplikazioa... dikotomia horiek etengabe presente zeuden ospatutako asanbladetan. Batzuek fokua bizitza sostengatzeko lehen ariketa horretan jartzen zuten bitartean, besteek hori konpontzeko modu hobereana presio politikoa egikaritzea zela zioten, instituzioen inplikazio zuzena bilatuz. Tentsio hori modu

dialektikoan bideratzen jakin zela esan daiteke, nahiz eta argi ilunak nabariak izan, edozein mugimendu sozialetan bezala.

Dinamikaren bukaera, udazken partean eman zen, harrera lan publikoek eten bat izan zutenean, hain zuzen ere. Horri, dinamika guztian zehar bezala, dimentsio politikoa argi bat eman zitzaion, errefuxiatu eta migranteen inguruko politika publikoak salatuz, administrazioaren pasibotasuna jo puntuan jarritz.

Etorkizunean horrelako egoerak erreproduzitzen joango direla esan dezakegu. Harrera lanen bitartez hartutako pertsonak gutxiengo bat direla badakigun arren, esperientzia honek agenda politikoen erdigunean jarri du gai hau. Bestalde, plano teoriko zein praktikoa etorkizuneko erronkei aurre egiteko irakasgaiak atera dira. Beraz, etorriko diren erronkei aurre egiteko baldintzak sortzen joan dira.

Beraz, hau guztia esanda... zein izan dira azpimarratzeko ideiak?

- Gizartearen erantzuna eredu garria izan da. Instituzioek betetzen ez zituzten espazioak betetzeaz gain, elkartasun sareak izan dira oinarrizko eskubideak errespetatu dituztenak. Herria administrazioaren gainetik igaro da bizitzaren sostengarritasunari dagokionez. Nahiz eta ez diren lortu eskatutako baliabide publiko eta errekurso guztiak, egingdako presioak bere fruituak eman dituela esan daiteke.
- Urgentziatzko lanari balio politikoa eman zaio. Beraz, nahiz eta egia den tentsioak existitu direla urgentziatzko arretaren eta interpelazio politikoen aurrean, bi horiek osatutako integritasun batera joan da. Esan bezala, urgentziatzko lanari balio politikoa emateak salto kualitatibo bat dakar, izan ere, oinarrizko eskubideen defentsa eta birproduzio komunitarioa estrategia berdinen parte izatera pasatzen dira.
- Arrazakeria eta xenofobiaren kontrako antidotorik hobereana, auzoetako komunitateak eta herri mugimendua borroka honetan inplikatzea izan da. Unean uneko arazo operatiboen gainetik, behetik gorako lan horren bitartez, errefuxiatu eta migranteak gure artean izan ditugu. Horrelako kasuetan, normalean, ezberdintasunari beldurra, aporofobia eta xenofobia eskutik doaz. Ezberdintasunari beldurra gure komunitateetan integratuz eta beraiek entzunez gauditu da, aporofobia oinarrizko arretarekin desaktibatuta da hein handi batean eta beraz, xenofobiari lekurik ez zaio utzi.



Europako ezkerria eta migrazioa, esku artean ditugun erronkak

Mamu batek zeharkatzen du Europa. Mamu hori, komunismoa baino, zoritxarrez, faxismoa eta pobreen arteko gerra da. Agertoki politiko berri honetan, ultraeskuinak inork baino hobeto jokatu ditu bere kartak. Gainera, eliteen arteko gerra batean aurkitzen gara, non kapitalismo finantzarioak eta globalizazioak bi agenda dituen: nazioarteko eliteen agenda eta elite nazional batzuen agenda. Talka horretan ultraeskuinak, esan bezala, bere marko teorikoa indartu du eta errefuxiatu eta migranteen afera, belduraren eta estigmaren bitartez, langileak erakartzeko baliatu du. Sozialdemokrazia jokoan kanpo dago, soilik politika identitarioak eskaini ditzakeelarik, esfera ekonomikoan alternatibarik ez duelako.

Ezker mugimenduan, ordea, proiektu alternatibo, global eta integralak artikulatzeko erabateko zailtasunak daude. Kapitalaren oldarraldiaren aurrean, bizitza defendatzeko determinazioa ez da nahikoa. Horretarako proiektu global bat eta estrategia amankomun bat behar da, momentu honetan ez dagoena. Praktika lokal eta autonomoek ekarpena egiten du-

ten arren, agertoki global honetan, aterabide eta perspektiba globalak ezinbestekoak dira.

Errefuxiatu eta migranteen aferan, diskurtso ekonomikoaren garrantzia klabea da. Ultraeskuinaren aldetik, langile klase "autoktonoaren" ustezko defentsa bat egiten da, kanpotik etorritako langileak mehatxu bat direla azalduz. Prekarizazioaren eta pobretzearen ondorioz sortutako egoera materialak pertsona asko ongizatearen zirkuitutik kanpo utzi ditu, horrek instituzio klasikoaren kontrako (estatu, alderdi, sindikatu eta beste ente batzuk) jarrera batera traxionatu ditu. Beraz, ezkerretik baldintza materialen eta emantzipazio ekonomikoaren diskurtsoa berri eta alternatiba bat artikulatzeko beharra dago. Bizitzaren sostengarritasuna ezin da soilik politiko simboliko eta identitarioetara mugatu; langile eta sektore prekarizatu guztientzat orain eta hemen proposamenak behar dira.

Sindikalismoa atalaia pribilegiatu bat da hausnarketa horiek emateko eta subjektuaren berrartikulazioaren inguruan artzeko. Sindikalismoa oinak lurrean dituen mugimendua da,

prekarizazio prozesuekin kontaktu zuzena duena eta bere interbenzio politikoaren lerroa hortik eraikitzen duena. Beraz, enbor sendo hori baliatuta, zuhaitza berreraikitzea errazagoa suertatu daiteke. Langile subjektuaren zatiketaren aurrean, migrante langileak funtsezko sektore bat dira eta beraz, gure ekintza sindikal, sozial eta politikoan barnebildu beharreko ezinbesteko subjektua. Subjektu hori kolektiboaren eta langile komunitatearen logikan integratu, balio politikoa eman eta zerumuga estrategiko baten inguruan artikulatzea da. LABen azkenen Kongresuko erabakiak norabide horretan doaz, hau da, sindikatua egoera berri honetara moldatzea. Antolakuntza erabakiak eta ildo soziosindikalean hartutako erabakiak klabeak dira zentzu horretan.

Baloreen eta gizartearen antolaketa kulturalaren esferan ere, hausnarketa sakona behar da Europako ezkerren baitan. Multikulturalismoaren eta unibertsalismoaren arteko kontraesan historikoa berriro hartu, eta birformulazio bat egitera behartuta gaude. Multikulturalismoaren erlatibismo absolutua alde batera utzi eta unibertsalismo zahar eta hertsia eragiten duen diskriminazioa birpentsatu behar dugu. Unibertsalismo berri bat behar dugu, eskubide, betebeharrak eta, oro har, izaera unibertsala izango duten elementu multzo bat. Unibertsaltasun horren definizioan, ahalik eta subjektu zabalena integratzea derrigorrezkoa da inor kanpoan ez uzteko. Kultura anitzen arteko elkarrizketa eta uztarketak unibertsalismo berri horren barruan kabida izan behar du, komunitate kulturelei dinamismoa eta ziurtasun minimoa eskainiz aldi berean.

Gainera, jakinik gaur egungo sistema politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak horretarako espaziorik uzten ez duela, emantzipaziorako helburuak behar ditugu, gure herrian burujabetzaren forma konkretua hartu dezaketena. Migranteekin lanketa komunitarioa garatzean, herria eraikitzen ari gara, herrigintzaren logika muturreraino eramaten. Herrigintza horrek, hain zuzen ere, hainbat deribada ditu.

Alde batetik, herrigintza bera beste parametro batzuetatik egikaritzea. Ezberdinen arteko lankidetzak eta logika berrien aplikazioa gure lan politikoan. Tradizio komunitario indartsu batean oinarrituz, problematika berriei aurre egin eta sare berriak sortu. Hori da gakoa. Kultura politiko berri baten eraikuntza sakondu eta aro berri honen zerbitzura jarri behar dugu.

Beste alde batetik, komunitatea erreproduzitzen du balore askatzaileetan eta alboetan egon daitezkeen agente eta subjektuak integratuz. Borroken eta subjektuen fragmentazioaren

aurrean, proiektu integralak sortzean dago klabea.

Maila estrategiko eta inkluso filosofiko batean, euskal imaginario kolektibo berri bat eraikitzeke lehen pausuak ematen ari dira. Nazioaren ideia berrasmatu eta prozesu dialektiko bat bezala ulertu behar da, Euskal Herrian bizi diren pertsona guztien ekarpena eta parte hartzea ezinbestekoa izango delarik zera berri(tu) horren sorkuntzan. Horrek ze estatu mota nahi dugun eta nondik eraiki nahi dugun hausnartzera garamatza. Imaginario berria, prozesu politiko eta unean uneko esku-hartze politiko lotzea ezinbestekoa da.

Gainera, udalgintza eraldatzailearen eta herrigintzaren arteko zubiak ere sortzen ari dira gai honetan. Herrigintzaren presioaren bitartez, udal ezberdinek babes soziala eta eskubide sozialak bermatzeko dispositiboak jarri dituzte martxan. Udalgintza eraldatzailean kokatzen diren agente politikoek ere, indar instituzional hori erabili dute errefuxiatu eta migranteen zerbitzura. Herrigintzaren eta udalgintzaren tarteko espazioak sortu dira; publikotik publiko-komunitarioa pasatzeko beharra azaleratzen ari da.

Badugu tresna (mugimendu politiko eta soziosindikala eta konkretuki, LAB), badugu herria eta badugu egitasmoa (bizitzak zentroan jarriko dituen burujabetza prozesu integrala). Orain pieza horiek guztiak puzzle berdinean forma koordinatua integratzea tokatzen zaigu. Ezin dugu ahaztu Euskal Herriak komunitatea eta herria eraikitzeke eta erreproduzitzeko baldintza hobezinak dituela. Euskal Herriko ezker mugimenduak diskurtso nazional eraldatzailea oso garatua du, burujabetza klabeetan forma hartzen duena. Diskurtso horrek sektore azpiratu eta zapalduen horizonte berriak eskaini diezazkieke, perspektiba integratzailea eskainiz. Migrante eta errefuxiatuen defentsa, lurraldearen defentsa eta euskal langileria defentsa korpus ideologiko eta diskurtsiboaren parte dira. Europako ezkerren parte handi batek defizit historiko hori izan du, hau da, nazioaren ideia alde batera utzi du eta beraz, ez da kapaza izan lurraldearen burujabetza, "bertako" langile klasea eta migranteen aldeko diskurtsoa prisma berdinen azpian konjugatzen. Bestalde, Euskal Herrian ehun sozial eta produktibo indartsua izateaz gain, esfera politiko eta sindikalean, beste lekuetan baino indar korrelazio hobea dago. Horrek eskubide sozialen defentsarako eta harrera baldintza hobek eskaintzeko posizioan jartzen gaitu; dena den, ez diogu europar testuinguru arriskutsuari muzin egin behar. Alternatibak eskaintzeko, subjektu berriak artikulatzeko, emantzipazio zerumugak eskaintzeko eta bizitzak defendatzeko garaia da.

